



LEHIAKETEI BURUZKO INFORMAZIO-OHARRA 2020-21

Zuzendaritza Batzordea egunero ari da pandemiaren bilakaerari buruzko datu ofizialak jarraitzen eta etengabeko harremana du Arabako eta Bizkaiko Federazioekin eta Euskadiko Federazioarekin eman beharreko urrats guztiak koordinatuz. Era berean, klubei eta iritzi publikoari informazioa eman diegu sarritan eta klub bakoitzeko lotura zuzendariak etengabeko komunikazioan daude klub guztiekin.

Ulertzen ditugu lehiaketei berriz ekiteko aukerari buruz dauden sentsibiltate eta pentsaera desberdinak. Hainbat klubek Zuzendaritza Batzordera jo dute lehiaketari nola edo hala berrekiteko eskatuz. Bestalde, klub askok adierazi dute denboraldia amaitutzat emateko erabakia hartu dutela entrenamenduak bertan behera utzi dituztela ere jakinaraziz.

Osasun egoerak eta gorritz dauden herrien araudiak eragotzi dute lehiaketen berrekitea. Adibide gisa, joan den astean gizonezkoen Preferenteko egutegiko 16 partidetatik bakarra joka zitekeen eta Gipuzkoako klubak erdiak baino gehiagok ezin dute entrenatu ere egin.

Testuinguru korapilatsu horretan, Zuzendaritza Batzordea martxoaren 14an lehiaketei berriro ekiteko aukera aztertzen ari da, datuek azken asteko hobekuntza baieztatzen badute. Zonakako talde txikien eta lagunarteko taldeen arteko txapelketa baten bideragarritasuna aztertzen ari gara, izen emate librekoa eta igoyerarik edo jaitsierarik gabekoa, aurrerago azalduko ditugun salbuespenekin izan ezik. Era berean, data hori iritsita lehiaketei berriz ekiterik ez balego, denboraldia behin betiko bertan behera uzteko unea izango litzateke.

Gure ustez, formatu hau seguruagoa da mugikortasunaren ikuspegitik, eta lehia-burbuila independenteak sortzea ahalbidetzen du. Gainera erabilgarriagoa izango litzateke eta eremu desberdinetako taldeen artean elkar eragiteko arrisku txikiagoa izango luke. Horretaz gain, hain egoera zailean lehiatu nahi ez duten klubentzat izena emateko askatasuna ahalbidetzen du balio negatiborik gabe.

Bestalde, aztertzen ari gara, halaber, gizonezkoen Gorengo eta emakumezkoen Ohorezko mailetan igorekin lehiatu ahal izatea, baldin eta datek denbora luzez lehiatzeko aukera ematen badute. Izan ere, komenigarria litzateke goragoko kategorietan hutsik geratzen diren lekuak betetzea.

Amaitzeko, erabaki hori Ezohiko Batzar Nagusi baten esku geratuko litzateke. Batzar horretan, klubei aldez aurretik zonakako bileretan aurkeztuko dizkiegun aukerak eztabaidatuko lirateke. Bilera horiek hurrengo egunetan jakinaraziko dira.

Donostia, 2021eko otsailaren 15a

ZUZENDARITZA BATZORDEA

